

**BASERRIAREN INGURUAN:
OINORDETZAZKO ITUNAK ETA
BIZKAIKO FORU ZUZENBIDEA**

Berrikitan ezagutu izan dugu Bizkaiko Foru Aldundiak emaniko 112/1993 Foru Dekretua (osotara emanda, Foru Aldundia-
ren azaroaren 16ko 112/1993 Foru Dekretua, Bizkaiko Herrial-
de Historikoko nekazal ustategietarako laguntzei buruzkoa).

Bertan, eta aspalditik datorkigun joera jakin bati eutsiz berri-
ro ere, Bizkaiko Herrialde Historikoaren nekazal ustategietara-
ko laguntzak arautu egin dira. Hauen artean, baserritar gazteek
nekazal ustategien titularrak heltzekoari buruzkoak. Izan ere,
kontu ezaguna dugu honako hau, eta gainera, bere bidean on-
dorio anitzak ekarri dituen bizkaitar nekazariarentzat.

Hala ere, laguntza hauek, Europako Ekonomia Elkarateak
ezarritako erreglamendu batean oinarriturik dauden neurrian,
berebiziko aukera ematen digute amankomunean kokatzeko
orain arte ardatz gurutzatuak izan, eta elkarrekin oso gutxitan
azterturik ditugun hiru elementuok: araubide europarra, foru
dekretuak eta foru zuzenbide zibil bizkaitarra.

Sasoi batean, baserritar gazteak baserriaren langintzan barneratzeko tresnak forupeko oinordetzazko itunak izan ziren, edo «ezkontza kontratuak», oraindik orain herriaren ahotan etengabe entzuten den adiera erabili nahi izanez geroz. Ezkontzeko unean, dokumentu horretan finkatzen ziren baserriko andragizon jaubeen eta baserrira ezkontzen ziren ezkontide gazteen arteko ituna eta berbatuak.

Bazen, beraz, Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibilean, honelakoak arautzeko lanabes juridikorik. Dena den, mende honetako hirurogeigarren hamarkadan gertatu zen baserriaren gainbeherarekin batera, mekanismo hauek ere zaharkiturik gelditu omen ziren, azken hogeita hamar urteotan belaunaldien arteko baserriaren eskualdaketa testamentu zein dohaintzaren bidez burutu baita nagusiki.

Aldi berrietan, haatik, agerian ditugu osteria ere honelakoak, argi ikusi baita hauexek izan daitezkeela (beharrezkoak diren zuzenketak egin eta gero, jakina) lurra eta lurraren inguruko ustiaketa prozesua berpizteko baliabide egokiak.

Gauzak honela, 1981. urtean ekin zion gai honi Espainiako Gobernuak, nekazari gazteak lurrarekin lotzeko erraminta oso-agoak asmatu zituenean, lehendik hainbat eskualdetan ohizkoak ziren irtenbide juridikoak (kasurako, Bizkaiko eta beste eskualdeetako oinordetzazko itunak), Espainia osorako ezarriz.

Esan bezala, hortxe ziren, besteak beste, oinordetzazko itunak, horretarako argitaraturiko 1981. urteko lege 49/81, abenduaren 24koan. Bertan, arestian azaldu denez, honelakoa zen idaztankera:

Art. 16.1: « El titular de la explotación podrá convenir la sucesión en dicha titularidad con uno de sus legitimarios que reúna la cualidad de colaborador. »

Hortxe zegoen, beraz, nondik-norakoa. Gurean, ordea, foru formula askoz zabalagoa zen, ezkontza kontratu horietako edukiak mendeetako egokitza penaz zuelako euskal baserrian.

Hain zuzen ere, etxebarnetan genituen, batetik, oinordekoa aukeratzeko askatasuna, beste oinordeko posibleen bazterketarekin batera osotua eta bestetik, itunaren formari buruzko bide zabalak.

Bizkaiko Foru Zuzenbideak, gainera, esandako guzti hori areagotu egin du bere baitan, duela urte t'erdi Eusko Legebiltzarrak arauturiko lege 3/1992 uztailaren 1koaren bitartez.

Irakur eta aldera dezagun, besterik gabe, lege testu horretan jarritakoa:

74. atala.— « Ezkontza-hitzarmenez, dohaintzaz edo Eskribau aurreko eskritura bitartez egindako itunez bana daitezke jarauntsiko ondasunak, guztiak edo batzuk, bertan agindutako era, gordekizun, ordezkatzeko, itzultze-hizpaketa, zorpe eta betekizunekin. Eskritura-egileek, gainera, dauzkaten ondasun guztiak edo batzuk unean bertan eskualdatzea zein hildakoan egin dadila erabaki dezakete. »

Nolanahi ere, hasieran aipaturiko nekazal ustiategietarako laguntzen foru dekretuak horretarako dagoen araubide europarraren aplikazioa egiten du Bizkaian. Izan ere, honela dio bere testuak:

Ign. Artikulua: « Nekazal ustiategientzako laguntza bideak ezarriko dira, beti ere honako hauei dagozkiela:

1. E.E.E-ren 85/797. Araudiko 1. artikuluan aurrikusi den baterako ekintzapideari heltzen dioten laguntzak.

a) Nekazal ustiategietako inbertsioak eta nekazari gazteen ezarketa, beti ere nekazaritza iharduera nagusi legez buru dezatenean.»

Hala ere, egokitzen hori egiterakoan badirudi dekretu honek aurreko planteamentua, hots, Bizkaiko Foru Zuzenbidepeko oinordetzazko itunarena, ahaztu edo alboratu egin duela, edo gutxienez, ez duela honelakorik lehen mailan jarri, Bizkaia dagokionez bederen, jarraiko lerrook irakurtzen baitira bere barruan:

3gn. artikulua, A) 2. Nekazari gazteek ustiategiaren titular-tsunari heltzekoak:

— *Eskabidea egitean 40 urtekoa baino gazteagoa izatea eta nekazal ustiategi baten titulartasunari, oinordetzako itun baten bitartez, 1981/49. Legearen arabera, edo jadaneko legegari lotzen zaizkion beste era batzuren bitartez heltzen zaionean.* »

Edonork galde diezaioke bere buruari: Zer nolako zentzua dauka formula honek, kontutan hartzen bada Bizkaiko nekazal lurra foruduna dela ehuneko ia ehunean? Zergatik ez, alderantzizko formula erabiliz, lehentasuna eman foruaren araberrako oinordetzazko itunari, lege 49/81 delako horri dagokiona bigarren mailakoa bihurtuz Bizkaian? Ez ote luke honek betekoa, bete ere, lege 49/81 delakoak bere Azken Xedapenetan arauturikoa, hots, *“La aplicación de las disposiciones de este Estatuto tendrá carácter supletorio respecto de las normas específicas en la materia de los Derechos civiles forales o especiales y de las dictadas por las Comunidades Autónomas en el ámbito de sus competencias”* »?

Batzuren ustez, ziur asko, legelarien arteko hika-mika eta esan-mesanak izango dira honako hauek. Guretzat, ordea, ez horrenbeste.

Bada, izan ere, bi bide hauexen erkaketatik datozkigun ondorioetan zer esan eta zer eztabaida. Lehen so batez, urrutira joan gabe, hauexek nabarmenduko lirateke: lehena, oinordetzari buruzkoa, hurrena, itunaren eraginaren ingurukoa eta azkena, itun honen gaineko zergei dagokiena.

Lehendabizikotik hasteko, zera esan behar: oinordetzazko itunek, foru zuzenbidearen bitartekoak badira behinik behin, ez dute eskatzen, oinordetzari buruzko alorrean, hauxe baino: baserritar bikote zaharraren eta nekazari gaztearen arteko ituna, baserri titularraren eta aukeraturiko ondorengoen artekoa, beste ondorengoak bazterturik izan daitezkeela, bizkaitar foru

zuzenbidearen oinarri nagusi den oinordekoa aukeratzeko askatasunaren eraginez. Lege 49/81 delakoaren menpekoek, al-diz, ezinbestean galdatzen dute baserriko seme-alaba guztien adostasuna eta hauei dagokien senipartea edo tokamena ordaindu beharra:

LEY 49/81, de 24 de diciembre, del Estatuto de la explotación familiar agraria y de los agricultores jóvenes.

Art. 16.2: « Si ninguno de los legitimarios reuniera dicha cualidad, el pacto, mediando el consentimiento de aquéllos, podrá otorgarse a favor de quien ostentara la cualidad de colaborador. »

Art. 29.1: « El sucesor en la titularidad de la explotación deberá efectuar el pago del haber hereditario correspondiente a los demás coherederos en la explotación, en el plazo de máximo de diez años, contados desde la apertura de la sucesión, debiendo abonar, al menos, el sesenta por ciento del haber durante los primeros cinco años. Las cantidades aplazadas devengarán el interés legal.»

3/1992 LEGEA, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilaria buruzkoa.

54. atala.— «Testamentu-egileak askatasun guztiz bana ditzake derrigorrezko oinordetza osatzen duten ondasunak aurreko atalean aipatutako lerro bakoitzeko oinordekoen artean, edo euretarik bakarra aukeratu besteak baztertuta, baita belaun-maila urrunagokoa hurbilagokoa baino nahiago izan ere.»

Bigarrenetik jarraitzeko, hauxe azaldu behar: foru zuzenbidearen oinordetzazko itunek, mota askotakoak izanik ere (gogoratu aurreaipaturiko 74. atala), bidea ematen dute baserri zaharren bizitza bitarteko edo hilondoko indarra izateko. Gogoratu, aldiz, Lege 49/81 delakoarenak, hilondoko ondorioak derrigorrezkoak dituela:

Art. 18: « El instituido sucesor de la explotación por pacto sucesorio habrá de mantener la cualidad de colaborador en la explotación hasta el momento del fallecimiento del instituyente. En otro caso, el pacto será revocable a instancia del instituyente o de cualquiera de sus legitimarios, salvo que se aprecien ponderadas razones de equidad para mantenerlo. »

Hirugarrenarekin bukatzeko, zergen aldetiko tratamentua ere ez da berdina, ez da hurrik eman ere, bi kasutan. Jaki-nak eta ezagunak dira zerga eta fiskalitate arazoek foru zu-zenbidearen erakundeekin izan dituzten liskarra eta gatazkak. Zerga arauak Kode Zibilean oinarrituriko erregelak ditugu ba-tipat eta horrexegatik ez dute erdiesten, sarri askotan, bestela-ko printzipio eta filosofia juridikoetan erroturiko errealitateak, alegia, foru printzipioetan mamiturikoak, modu erraz batean zergapetzea.

Gure autuari dagokionez, honelakoa du bere araubidea lege 49/81 delakoak:

LEY, 49/1981, de 24 de diciembre, del Estatuto de la explota-ción familiar agraria y de los agricultores jóvenes.

Art. 62.1: « La transmisión de la explotación en su integri-dad, tanto en pleno dominio como en nuda propiedad, a fa-vor de un colaborador de la misma gozará de uan reduc-ción del cincuenta por ciento en la base imponible del im-puesto correspondiente.

De la misma reducción gozará la extinción del usufructo que se hubiera reservado el transmitente. »

Art. 63: «La continuación de la explotación por el cónyuge supérstite en ningún caso se considerará sujeta a tribu-tación.»

Lerro nagusiak honakook ditugu, beraz, formula honetan:

A) Edozein nekazal ustiategiri (baserriak zein bestelakoak) egokitzen zaizkio honako hauek.

B) Filosofia fiskala desberdina erakusten dute hauek: batean, alargunaren kasuan, honek aurrera eraman dezakeen ustiategiaren jarraipena zergapetu ere ez da egiten, bestean, ordea, laguntzailearen gertaeran, zergapetu bai baina zergapetuta geratzen den balioaren ehuneko berrogeita hamarra (%50a), beheratu egiten da, zerga kopurua zenbatzeko unean.

Labur biltzeko, nekazal ustiategiaren aldeko jarrera nabaria. Ez dezagun ahantz, bestalde, artikulua idazkerak «dagokion zergan» adierazten duela. Horrekin lotzen badugu, gainera, aurreko esamolde zabala, hau da, nekazal ustiategiaren aldaketakoa, bidenabar ikusten da zerga-kontu honetan lege honek barru hartuko lituzkeela kostubidezko zein dohainezko eskualdaketak, eta horren lekukoa dugu, zuzen-zuzenean, gerokoan orrialde hauetara alderatzen dugun 89/3. Foru Araua, Ondare-eskualdaketa eta Egintza Juridiko agiridunen gaineko Zergari buruzkoa.

Bizkaiko fiskalitatea, oster, irtenbide are aldekoago baten ildotik datorkigu gai honetan. Aldarte berekoa izanik ere, badira ñabardura bereziak Bizkaiko sisteman, jarraiko artikuluen irakurketatik eratortzen denez:

Ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailea, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren testu Bategina onesten duena.

A) Zergagaiari dagokiona:

19. Atala.— Oinarri Kitagarria.

2. Foru-Arau honen 5. ataleko 2. Idazatian jarritakoaren kaltetan jo barik, familia-mailako nekazal ustiapideren bat, osorik, irabazpidez, jabego betean nahiz jabego hutsez, bertako lankideren baten alde eskuladatzeak, %50eko beherapena izango dau bere zergagaian.

Eskualdatzaileak gorde eukean gozamenaren ezabapenak ere izango dau beherapen bera.»

B) Zerga menpekotasunik eza.

3. Atala.— Zergakizuna.

5. Bizirik iraun daian ezkontideak familiaren nekazal ustiapidean jarraitzea ez da inolaz ere zerga honen menpekoa izango.

Txatal honen eta aurrekoaren eta bai Foru-Arau honen 19. Ataleko 2. txartalaren ondorioetarako, familia-mailako nekazal ustiapideei buruzko abenduaren 24ko 1981/49. Legean zehazten danari eritxiko jako familia mailako nekazal ustiapide.»

C) Zerga salbuespenak.

5. Atala.— Salbuespenak.

2. Arbasoek euren ondorengoen edo oin-ahaideen alde egin daiezan baserri eta bere ogasunen irabazpidezko esku-aldakuntzak, funtsa nekazal, baso edo abelazkuntzazko ustiapidetarako erabili eta esku-aldatzaileak berak ustiatzen badau.

Salbuespena, jabetzaileak berak sei urtekoan gitxienez baserria eta honen ogasunak ustiatzearen baldintzapean egongo da.»

89/3. FORU ARAUA, Ondare-eskualdaketa eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergari buruzkoa.

43. artikulua.

I.B) Salbuetsita egongo dira:

17. Arbasoek beren ondorengoen edo oin-ahaideen alde eskuetsitako eskualdaketek, xedetzat nekazal, oihan nahiz abelzaintzazko ustiapen batetarako destinatuak diren baserria eta haren etxaguntza dutenean, eta beti ere, Eskualdatzailea lehenespenez, zuzenean eta pertsonalki ustiapen horretan aritzen bada eta eskuratzaileak era berean horretan iharduten badu edo iharduteko asmoa baldin badu.

Salbuespena, eskuratzailleak eskuraketaren ondoren hurrengo sei urteetako aldian zehar, iharduera haiek benetan, zuzenean eta pertsonalki burutzeari baldintzatua ulertzen da.

Badirudi beraz, ondorio batzuk atera ditzakegula araubide bizkaitar honetatik:

A) Bizkaiko fiskalitatean, nekazal ustiategiari dagokionez, bi nekazal ustiategi mota bereizi behar ditugu: lehena, lege 49/81 delakoak zehazturikoa; bigarrena, baserria, honen kontzeptua aurrekoarekin zertan desberdintzen den argi egon ez arren. Guk dakigula, baserriaren zeharkako kontzeptu bakarra Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibilak ematen digu, bere hogeita seigarren artikuluan. (26. atala.— *Baserria gainerantzekoekin dohain eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira.*) . Nafarroan, aldiz, gauzak agerikoagoak ditugu hango foruaren idazkeran: «*LEY 48.— La casa, sin constituir persona jurídica, tiene su propio nombre y es sujeto de derechos y obligaciones respecto a las relaciones de vecindad, prestaciones de servicios, aprovechamientos comunales, identificación y deslinde de fincas y otras relaciones establecidas por la costumbre y usos locales. Corresponde a los amos el gobierno de la casa, el mantenimiento de su unidad y la conservación y defensa de su patrimonio y nombre.* »

B) Lehen ustiategi motari, hots, lege 49/81 delakoak atondutakoari, zerga menpekotasunik eza dagokio kasu batean (alar-gunarenean) eta zergagaiaren beherapena (%50koa) bestelakoetan, hau da, Espainia osorako dagoen erregimen berbera dohainezko eskualdaketen alorrean. Gurean, hala ere, formula ez da «*zerga*», orokorrean hartuta, zerga konkretu baten barruko araubidean jarritako erregelak baino. Beraz, badirudi zabalago izanik ere, oinordetza eta dohaintza gaietan, kostubidezko transmisioetan ez dela hain aldekoa Bizkaiko foralitatea, lege 49/81 delakoaren esparruan.

Bigarren ustiategi motari, alegia, baserria delakoari dagokion erregimen fiskala, salbuespenaren ildotik bideratu da, dohai-

nezko eta kostubidezko esku aldaketetan. Gainera, salbuespena foru zuzenbidearen erakunde jakin baten inguruan antolatu da. Hain zuzen ere, tronkalitatea eta norbereko baserri-ustia-ketarako konpromezua izan dira osagai erabakiorrak zergaren salbuespen honetan. Bide honetatik joanez, salbuetsi egin dira ondorengo nahiz tronkaleko beste senideen aldeko eskualdaketak. Enparauetan, beraz, baserria eskualdatzeko unean izango den erregimena bestelakoa izango da, alegia, nekazal ustiategi orokorre dagokiena.

Haria, nonbait, etena dugu fiskalitatearen inguruko pasadizu hauexekin. Etor gaitezen, beraz, gure autura eta ikus dezagun nola uztartzen den esandako guzti hori, aipaturiko oinordetzazko itunarekin.

Izan ere, oinordetzazko itunak, foru zuzenbidekoak bederen, zergapetze aldekoagoa du Bizkaiko Foru Zuzenbidean, ezbairik gabe aurrekoa ikusi eta gero. Gutxienez, lege 49/81 delakoaren hainakoa eta gainera, baserriaren eskualdaketa gertatuz geroz, are nabarmenagoa.

Dena den, foru zuzenbideak antolaturiko oinordetzazko ituna, nekazal ustiategiekin ezezik, bestelako errealtate batzurekin ere ezkon daiteke. Horrelakoetan araubide fiskal zehatza eskertzekoa litzateke.

Behar-beharrezkoa dugu, beraz, oinordetzako itunaren kontzeptu berezia, foruaren argitan mamitutakoa, nekazal ustiategiaren kontzeptu propioarekin uztartu eta horretarako berenberegiz sorturiko araua moldatu, honen barnean fiskalitatearen egokitzapena ere bermatuz.

Hiru kontzeptuok dira beraz, hemengo dantzariak. Bizkaiko Foru Zuzenbidearen oinordetzazko ituna, nekazal ustiategiaren gaineko legeria eta zeresanik ez, nekazal ustiategiaren inguruko fiskalitatea. Azken hau da, izan ere, dantza honen musika, zerga kontuena izan ohi delako betidanik kapitulurik garrantzitsuena honelako gaietan.

Esan legez, maiz gertatu da, batez ere foru zuzenbidearen gunean, fiskalitate ez aldeko baten ondorenez, foru erakunde zenbait desagertzea. Ezkontza kontratuen beherakada horretan nabaria izan da, familia baserritarraren aldaketa sakonekin batera, zergen eragina. Kontratu haietan baserriaren eskualdaketa gauzatzeko barru hartzen zen dohaintzak, ez zuen izan, urte frankotan, aldeko tratamenturik. Horra hor, foru lege berriaren inguruan, erronka berria, Bizkaiko Foru Aldundiak eskuartean duena.

Zernahi gisaz, komeniko litzateke, Foru Dekretu honen karian, gure begiak Foru Zuzenbidera bueltatzea, bertan baititugu egungo zenbait arazorentzako ere irtenbide malguak. Penagarria gertatuko litzateke bizkaitar foru zuzenbideak eskaintzen dizkigun bide berrituak alboratzea, bide horiek gaur eguneko kezkei erantzuteko era egokiak baldin badira bederen.

Honetan ez da nahikoa legeak egin eta argitaratzea, honetan zinez eta benaz egin behar baita, odol berria foruaren ontzi eta zain zaharretan sartu eta erakunde juridikoak eguneroko bizi-moduan txertatu. Bide honetatik abiatuta, gureari lehentasuna ematea, zilegi ez eze, Bizkaiko nekazariantzat onura eta profitagarria ere bada eta.

Andres Urrutia